

SUBJETU ETA PREDIKATUA

Irakurri testua eta erantzun beheko galderei

Maria Isabel negarrez **hasi zen**, lurrean, eta Borjak eta Pablok pilotan jolasteari **utzi zioten**, eta lasterka **hurbildu ziren**; haientzat borroka on bat bezalakorik ez dago munduan. Maru bakeak egiten **saiatu zen**, baina beranduegi zen, ordurako Marta zaplaztekoak **banatzen hasia baitzen**. Normalean, ni **ez naiz** horrelako kontuetan **nahasten**, ez zaizkit-eta egokiak iruditzen pertsona azkarrentzat, baina Maria Isabelek **kosk egin zidan** orkatilan, eta hori gehiegizkoa zen. Labur esanda, irakaslearen txilibitua **entzun genuen**, baina **ez genion** horratio elkar **jotzeari utzi**. Kontrara, gogo handiagoz **ekin genion**.

Mereé ANGURA
AntiBarbiak, Supermegaextraeskolarrak
Desclee de Brouwer



1. Zein hitz mota dira nabarmenduta daudenak?

2. Adierazi hurrengo aditzen egileak edo subjektuak nor diren.

Hasi gara:	Etorri zen:
Abestu dut:	Ekarri dituzte:
Erosi zenuen:	Haserretu zara:

3. Markatu esaldi hauetako predikatua:

- Nere lehengusuek artilezko jertseak egin dituzte.
- Egunero nire txakurrak kalera ateratzen ditut.
- Aurtengo festak ez dira ospatuko.
- Larunbatean koadrilako guztiak afaltzera joango gara.
- Basoko zuhaitzak usteldu egin dira.

Aurkitu hurrengo esaldietan subjektua:

- Izaroren lagunak ez dira gaur etorri.
- Aralarko artzainak Larraitzera joango dira gaur.
- Gu orain ez goaz inora.
- Oso famatuak dira Mundakako inauteriak.
- Gaez etorri zitzaizkigun zuen auzokoak.
- Bihar kontatuko digute dena institutuko ordezkari berriek.

- Zuek emango dizkidazue etxeko giltzak orain.
- Heldu zaigu zuek bidalitako azken gutuna.
- Paperezko lanparak oso arin hondatzen dira.
- Eleberri zahar horiek edonon egon ahal dira.

Aurkitu izen sigtagma hauen ardatza (hitz nagusia):

- Idiazabalgo gazta zaharra.
- Zuen amaren etxe berria.
- Gure lagunek.
- Zurezko oinetakoak.
- Hereneguneko egunkaria.
- Zuen katutxo beltzak.
- Kamioi beltz luze horiek.
- Azoketako zeramikazko irudi luzanga horiek.
- Haien musika lasai hura.

Bereizi subjektua eta predikatua esaldi hauetan eta biribildu aditza:

- Gure amamaren laguna hil egin da.
- Zuen etxeko langilea gaur ez da etorri.
- Gure amak guri ez digu esan nora joan.
- Gure urtebetetzean zuen lagunak etorriko dira.
- Argizarizko kandela horiek ez dute horretarako balio.
- Gero emango dizkizute auzoko horiek etxeko giltzak.

Lotu subjektu bakoitza predikatuarekin.

- | | |
|--------------------------|------------------------------------|
| • Guk | ... ez dute gaurko emango. |
| • Haien lagunek | ... oso entretenigarria izango da. |
| • Bizkaiko txakolina | ... oso laburra da. |
| • Gure lagun horren gona | ... ez dakigu zer esan duzuen. |
| • Zuen saio gustukoena | ... badakite zer egin orain. |
| • Datorren asteko filma | ... oso ona omen da. |